

Telebista euskeraz

Deia, 1977-07-15.

DEIA-k Joxe Mari Iriondo-ri elkar-hizketa bat egin dio. Ez dakit irakurri duzun. Neretzat, erneagarria da: euskerak ez du Espainiako telebistan, ez leku, ez denbora, ez errespetorik aurkitzen.

Gure herriaren ispilu bat da.

Baina, hizkuntzaz ari gara orain: hizkuntzen bizitza, komunikabideen esku dago aspaldi.

Nola dago gure hizkuntza?

DEIA izan da euskeraren historia guztian, berriak eraginda izan duen lehenengo egunkaria. Berandu da. Hala ere, ondo dago. Baina ez da nahikoa.

Irratian egin dira saio ederrak. Bat, 24 ordukoa. Herri Irratiak antolatua orain dela gutxi. Irrati honen ahalegin osoa gutxi da, ordea, erdera hutsean ari direnen artean. Eta Telebistan, berriz, eragin handien duen komunikabidean, astean ordu erdi bat bakarrik du.

Eta zer ordu erdi!

Zentralismoak bere gisa utzitako ordu erdi zokoratu bat, ikusi eta entzute zailekoa, makinaz eta gizonez izan daiteken urriena. Eta oso merkea; azken sei hilabete hoietan ez baitu lan hortan dabilzanen soldatarik ordaindu. Gero, egunero berriak emateko bost minutuko tartetxo bat eskatu dute, eta ukatu egin diete. Nola biziko da hizkuntza bat eskola eta Unibertsitate ofizialik gabe, irratirik gabe eta telebistarik gabe!

Behar dugu bide guzi hoietan ofizialki euskera sartu.

Hau, Autonomi politiko zabal batekin lortuko dugu.

Bitartean, ordea, Autonomia hau lortzeko arrazoirik haundienetako bat hau da: euskeraren ofizialtasuna eskoletan, Unibertsitatean, irratian eta telebistan.

Herri baten hizkuntzak ez hitzeko behar duen arnas honen aurka dagoena, faszista da; nahi den kolorekoa, nahi den jantzi eta sigletakoa, baina, faszista.

Eta faszismoaren aurka burrukatuko gara lege onez, ari garen bezala, edo txarrez, batzuk bide bakar bezala aitutzen dutenetik.

Arrazoi nork duen, oraingo agintariek erakutsi behar digute.